



BARREN

TOKIKOM



Igoera bertikalaren  
puntaren puntan

# EUSKAL KANTAGINTZAREN ERREPASO HISTORIKOA

## KANTALDI-HITZALDIA

Ekainak 22, asteazkena, 18:30  
Kultur Etxeko sotoa

eu<sup>sk</sup>ar<sup>az</sup> hitz<sup>egiteko</sup>  
**Tertuliak**



elgoibar

sinuöse



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jon Aranao  
Guillermo Torres

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Asteleheneik ostiralea: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larrietatik: 11:00 - 13:00

Ispepandegi zeharritza daukagu.  
Deitu ordua hartzena.

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
- MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**MEKANOSA**  
Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

**CORDON VILARCHAO**

DEKORAZIOA

Karpo eta barneko estaldura  
Zoluzak ezaritzea  
Lakaduraz egut, aluminio, PVC.  
Pintura orokorra

San Roke, 7 behea  
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modulua  
Tel. 943 740 570

GRUPO  
TRIALMM

**A. Garate**

Era guztietako igeltseritza lanak egiten dituen  
angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

**610 226 651**

barrena 11, EIBAR

**garajesGarcia.com**

KUPOI HONEKIN

**8 PUNTUKO**

**SEGURTASUN BERRIKUSPENA DOAN**


**BOSCH Service**  
Car Service

**ARAGON**  
Barnetutako ofiziala

www.garajesgarcia.com  
g.garcia@garajesgarcia.com

Erakutsa: 943 820 697  
Lortzea: 943 202 214  
943 127 271

<p><b>6.000€</b></p> <p>Ford Focus Urteak: 2006 Kilometroak: 45.000 Egocera: Erabilta (prezioan barne: transferentzia, distribuzio lortu, oloa eta errezeta berriak)</p>	<p><b>11.500€</b></p> <p>Citroen DS3 1.6Vt Special Edition 120 Motorea: 1.6 Vt1 Gasolina Kilometroak: 115.000 Egocera: Erabilta</p>	<p><b>21.000€</b></p> <p>Honda Civic Motorea: 1.6 I DTEC Diesel Kilometroak: 5.000 (KM 0) Egocera: Erabilta</p>
<p><b>7.000€ + ITCZ (Bere deialeriatzako-izateak)</b></p> <p>Citroen Berlingo 1.6 90 x 600 Motorea: 1.6 90x600 Diesel Kilometroak: 90.000 Egocera: Erabilta</p>	<p><b>12.000€</b></p> <p>Suzuki Jimny 1.5 0008 J1X Motorea: 1500 DDE5 Diesel Kilometroak: 90.000 Egocera: Erabilta</p>	<p><b>14.800€</b></p> <p>Audi A4 Motorea: 2.0 TDI Diesel Kilometroak: 80.000 Egocera: Erabilta</p>



ENEKO ITURBE

## “Zuk kontsumitzen al duzu bigarren eskuko arropa?”

**K**alitatezko arropa, originala, autentikoa eta merkea: ez dirudi aukera txarra, ezta? Ba, honexekin, hitz bat besterik ez zait etortzen burura: bigarren eskuko eta *vintage* arropa. Gaurko honetan, gai honi buruz duzun iritzia jakitea gustatuko litzaidake, Ana.

Egia esan, urte asko dira bigarren eskuko jantziak erosi eta nire armairuan leku handia betetzen dutena. Aitortu behar dut, ordea, nire inguruko zenbait pertsonak gustuko ez badute ere, erabiltzen jarraitzen dudala, izan ere, *vintage* jantziak oso gustuko ditut!

Nahi al duzu sekretu bat kontatzea? Ea ba, hor doa: dauzkadan bitxikeri guztiak, horrelako lekuetan erosi izan ditut... eta, gainera, badakizu zer? Inoiz modaz pasatzen ez diren sentazioa dut!

Zuk kontsumitzen al duzu bigarren eskuko arropa? Zalea al zara, Ana?

Urte guzti hauetan zehar, hainbat herrialdetan bizi izan naiz, eta hiri desberdinak bisitatu ondoren, geroz eta bigarren eskuko

denda gehiago daudela konturatu naiz, batez ere kale-zuloetan eta inoiz pentsatuko ez nukeen txoko bitxietan. Nire iritziz, lokal hauek xarma berezia izaten dute, aparteko giroa, eta usaina ere halakoxea izaten da!

Hala eta guztiz, pena ematen badit ere, estatuan denda hauei buruz dugun irudia nahiko txarra da, eta ezin da alde batera utzi zenbaitek jantzi hauei buruz duten iritzia: prenda zaharkituak direla. Ez al zaizu iruditzen?

Nire aburuz, ordea, badute arrazoi puntu bat... Izan ere, Madril edo Bartzelonan egon naizen bigarren eskuko denda hauetan, esaterako, arropa zikin asko dute, asko gaizki zainduta daude, eta benetan garestiak direla ezin da, ez, ukatu.

Azken finean, birziklatzeko modu bat da, eta eguneroko *look* aspergarriak hobetzeko bide erraza ere: zergatik ez aprobetxatu? Gure armairuetan izatea nahi ditugun hainbat jantzi lor ditzakegu toki hauetan, eta originalak gainera! Animatu eta bisita ezazue noizbait horrelako dendaren bat, ziur bainago mereziko duela!



ANA ALBERDI

## “Nire ikuspuntutik bigarren eskuko arropa modan jarri da”


**B**igarren eskuko arropa eta dendez hitz egin didazunean Holandan pasa ditudan sei hilabetez gogoratu naiz. Zuk esaten duzun bezala, European askoz ere ohikoagoa da bigarren eskuko dendak edonon aurkitzea. Nik Amsterdam eta Utrechtez ondo hitz egin diezazuket. Kale nagusietan aurkitu ditzakezu bertan bigarren eskuko dendak, eta benetako altxorak topatu daitezke. Baina ez Herberetatik bakarrik, Berlinen egon ginenean ere bigarren eskuko azoka izugarri bat bisitatzeko aukera izan genuen, eta ez dakizu zenbat gustatu zitzaidan bertan arnastu zitekeen giroa. Bigarren eskuko arropa postuak musika taldeekin tartekatuta, baita janariarekin ere. Mugimendu bat ziruedien, birziklatzearen aldeko mugimendu bat, gaur egungo moda sektoreari bizkarra ematen zion erreboluzio bat.

Aitortu behar dut ordea ni ez naizela bigarren eskuko jantzien oso zalea, ez dakit zergatik, ohitura falta izango da. Bertan egon

naizen bitartean erosi ditut pare bat gauza, baina ez gehiegi. Agian ez nago ohituta beste norbaitek eraman duen zerbait nik jantzita eramatera. Eskrupulosoak izango al naiz? Agian, izan daiteke, eta uste dut ez naizela bakarra.

Bestalde, askotan iruditu zait bigarren eskuko jantziak (askok izaten duten egoera kontutan izanda) oso garestiak direla, eta prezio horretan nahiago dudala egoera hobean eta berriak diren jantziak erostea. Ez duzu uste? Nire ikuspuntutik bigarren eskuko arropa modan jarri da, eta hortaz ere aprobetxatzen ari dira horrelako dendak jarri dituztenak. Edo ez, agian okertuta nago. Iritzi bat besterik ez da.

Baina hala ere ideia ona iruditzen zait bigarren eskuko arropa eta dendak sustatzea, hauei merezi duten meritua aitortzea, eta gizarteak moda jasangarriaren aldeko apustua egitea. Azken finean, armairuan dugun edozer gauzari bigarren erabilera bat ematea beti positibotzat hartu beharko genuke.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euzko Leuzakomun Irizpizgarria

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-  
kiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain  
hartzen Iritzia, Zozaok Beleari eta eskutitzak ataletan adiera-  
zitatekoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KA-**  
**ZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati  
Agirreazaldegi, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier  
Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Amaiz  
**ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika  
**ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABO-**  
**RATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz  
Irueta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirre-  
gomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre,  
Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila,  
Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ain-  
hoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen An-  
sola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enez  
Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander  
Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA**  
4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



elgoibar  
HEZKUNTZA

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ESKUBIDEAK

(Doinua: Pasaiaiko plazatik)

Herritar asko eta milaka aburu, gure eskubideak izan nahi ditugu. Ta gure gozamen dugunez helburu, Elgoibarko gaztetzat parke bat nahi dugu.

(Egileak: Nora Gurrutxaga Osoro 9 urte eta Intza Izagirre Aranbarri 9 urte)

Beinke bertso eskola

### ► FRONTOI NAHIAN

(Doinua: Pello Josepe)

Elgoibarren gu juten gerala frontoiak okupatzera, baina aurretik jende guztia juten da han jolastera. Orduantxe gu han juten gera besteren bat aurkitzera. Gu Elgoibarren frontoi bat nahian gabiz gora eta behera.

(Egileak: Eneko Etxaniz Irureta 9 urte eta Beñat Izagirre Aranbarri 9 urte)

Beinke bertso eskola



**2016-2017 IKASTURTEA**  
DBHko eta BATXILERGOKo  
matrikulazio epea

**Ekainaren 20tik**  
**uztailaren 6ra**

**Bulegoko ordutegia:**  
**09:00etatik 13:00etara**

## Elgoibar-Arreiturre BHI

### DBH BATXILERGOA

Giza eta  
gizarte  
zientziak

Zientziak

Artea

- Gizarte zientziak  
- Humanitateak

- Osasun Zientziak  
- Zientziak eta teknika

- Musika

943 748 397


013431@hezkuntza.net  
www.elgoibarbhi.eus



## Epaimahaiak aukeratu du Aita Agirre eraikina berritzeko proiektua erredaktatuko duen lan taldea

**E**torkizuneko Kultur Etxearen proiektua Jovino Martinez Sierra arkitektoak egingo du. Erredakzioak urte amaierarako amaituta egon beharko du, datorren urtean obrei ekiteko. Proiektuaren erredakzioa hastearekin batera, partaidetza prozesu bat iragarri du Udalak Aita Agirre eraikinaren etorkizuna definitzeko.

Jovino Martinez Sierra arkitektuari esleitu diote Aita Agirre eraikina birgaitzeko proiektua. Guztira zazpi talde aurkeztu ziren lehiaketara. Epaimahaiaren iritziz, arkitektu eta doktore honek egindako proposamen teknikoak bigarren onena izan da eta proiektua erredaktatzeko eskaintza ekonomikorik onena eskaini du (55.000 euro, BEZ gehitzeke).



Planteatutako lana ondo ulertu du Martinez Sierra arkitektoak, epaimahaiaren arabera. Elgoibarko herria eta kultur zein kirol ekipamenduak aztertu ondoren, lizitazioan eskatutako beharrei aurre egiten jakin duela ere nabarmendu du.

Aita Agirre eraikineko barne-distribuzioan berrikuntza ausartak planteatu ditu

arkitektoak. Horrez gain, eraikinaren konposizioa eta ingurunea erabat erresetatu ditu, beti ere epaimahaiaren arabera. Hala ere, aukeratutako proposamenak seguruenera zenbait aldaketa izango ditu praktikan, gauzatzen joan ahala sortuko diren behar berriei aurre egiteko.

## Berdintasun plana osatzeko partaidetza prozesua

Elgoibarko Udala emakume eta gizonen III. Berdintasun Plana diseinatzen ari da partaidetza prozesu baten bidez. Berdintasun plana osatzeko herritarren ekarpenak jaso zituen eguaztenean Elgoibarko Udalak. Herritarrak taldeka bildu ziren, planteatutako zenbait gairen inguruan hitz egiteko eta proposamenak bideratzeko.

Alde batetik, balore aldaketak, estereotipo sexistak, hezikidetzak, maskulinitatea eta justizia soziala landu zituzten. Bestetik, emakumeen ahalduntzea, osasuna, lan baldintzak, kirola, ezintasuna eta migrazioa aztertu zituzten eguaztenean udaletxera gerturatutako herritarrek.

Horrez gain, bizitza pertsonala, lana, familiaren uztartzea, menpeko pertsonen zaintza eta baliabideak jorratu

ziren taldeetan. Genero indarkeriari lotutako hainbat aspekturi buruz ekarpenak egiteko aukera izan zuten.

Elgoibarko III. Berdintasun Plana Elgoibarko Udaleko arloetako teknikariek zein ordezkari polikariek batera diseinatzen ari dira, Udaleko elkarteetan eta eragileen partaidetzaz gain. Berriki internet bidez galdetegi batzuk ere zabaldu dituzte elgoibartarren artean. Gazteen artean ere inkesta bat zabaldu dute. Berdintasun arloa eta Emakume Kontseilua ari dira proiektua koordinatzen, Murgibe aholkularitzarekin batera.

Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak espero du uztailerako prest izatea plana. Emakundek gainbegiratu ondoren, uda ostean Osoko Bilkurak onartu beharko du.

## Datorren astean, barkamenari buruzko mintegia Upai-Goiti baserrian

Barkamenari lotutako mintegia antolatu dute Upai-Goiti baserrian ekainaren 25erako (euskaraz) eta 26rako (gaztelaniaz). Izan Arregik bideratuko ditu saiokak. Besteak beste, erruaz, kritikaz eta amorruez arituko dira eta barkamenaren zergatiaz. *Focusing* prozesuaz eta *mindfulness* kontzeptuaz jardungo dute. Izena emateko: [urbizixaelgoibar@gmail.com](mailto:urbizixaelgoibar@gmail.com) edo 616 554 762 (plaza mugatuak).

## Amaitu da ostalaritzan euskaraz jarrera positiboz formatzeko ikastaroa



Euskara Plus oinarrizko euskara ikastaroa arrakastaz amaitu dutenei diplomak banatu zizkieten astelehenean. Ikastaroa Udalak antolatu zuen Banaiz Bagara elkartearekin batera, jatorri anitzeko herritarrentzat eta euskara gutxi dakitenentzat. Ostalaritzaren esparruan lan egiteko oinarrizko gaitasunak eskuratzen laguntzeko helburua izan du ikastaroak. Bi astetan zehar, ikastaro erabat praktikoa jaso dute: oinarrizko hiztegia ikasi dute eta ostalaritzako esparruan ohikoak diren komunikazio egoerak landu dituzte. Beroengana euskaraz eta jarrera positiboekin zuzentzen eta agindu errazak jasotzen ikasi dute.

## Sigmako autobus geltokia Santa Anara aldatu dute, pasabide berriko lanengatik



Hasi dira Zizilionen pasabide berria egiteko lanak. Lanek iraungo duten bitartean, Sigmako josteko makina pareko autobus geltokia Santa Ana kalera aldatu dute, errotonda ondora. Pasabide berria Olason egindako pasabidearen antzekoa izango da, eta igogailu bat izango du.

## IMH sariak eta diplomak banatu dituzte

Igor Arriola Nicolas elgoibartarrak eskuratu du IMHko ikasle ohi aipagarriaren saria (beheko argazkian eskumakoa). Alcorta Forging Group enpresako bezeroen harremanetarako kudeatzailea da. IMHren arabera, "Lanbide Heziketatik abiatu eta ibilbide profesional eredugarria egin duela aitortu nahi dugu, lan munduan egindako progresio txalogarriatik".

Horrez gain, Elgoibarren bizi den Aitor Zubiaurre Usandizaga mutrikuarrari aipamen berezia egin diote (ezkerrekoa). EKIDE enpresako I+G arloko ingeniaria da. "Industria 4.0 arloan ikusmen artifizialaren eremuan EKIDE barruan enpresa berria sortzen ari dela eta, egiten diharduen lan bikaina aitortzeko" egin diote aipamena.

Horiez gain, beste hiru sari ere banatu ditu IMHk: Ikasle aipagarri saria Oihane Baskaran Urueña ermuarrari egokitu zaio, eta mekatronika dual eleanitzean jardun du (8,43ko nota lortu du). Dualeko aipagarria Egoitz Arrizabalaga elgoibartarrak eskuratu du (mekatronika industrial, 8,43ko nota), Azkenik, elgoibartar onenaren saria eskuratu du Andrea Ibarluzea Osorok (fabrikazio mekanikoko diseinu eleanitza, 7,45ko nota).



## EH Bilduk eguenera atzeratu du biharko mitina

EH Bilduk biharko, zapatua, aurreikusita zeukan mitina datorren astera atzeratu duela jakinarazi du. Beraz, EH Bilduk Elgoibarren eskainiko duen ekitaldia hilaren 23an egingo da (eguna), 19:00etan Kalegoen Plazan.

# “Askotan logela denak beteta egoten dira, eta umeak, noiz libratuko zain”

## ► MARI CARMEN SEIJAS HAUR MINBIZIDUN BATEN AMA

Mari Carmen Seijas mendaroarrak bi urteko semea du leuzemiak jota. Azkoitian bizi da orain eta Donostia Unibertsitate Ospitaleko onkologia pediatrikora bueltara dabil abendutik hona. Seme-alabak minbiziak jota dituzten gurasoek baino ez dakite halako egoera bizitzea zer den. Gaitzaren gogorra bizitzeaz gain, beste oztupo batzuei ere egin behar diete aurre gurasoek. Besteak beste Donostiako erietxean duten leku faltari. Hori dela eta joan zen astean Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean hitz egin zuen Seijasek arazoaren berri emanez. Asteon ospitalean egon da loritz semearekin eta handik eman digu egoeraren berri.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

### ◆ Abenduan jakin zenuten zuen seme loritzek leuzemia daukala. Horrelako berriak jasotzea gogorra da, ezta?

Bai, noski. Burura etorri zitzaidan lehen gauza izan zen umea hil egingo zela. Ordura arte minbiziarekin asko hil egiten zirela entzuten genuen. Bi urte ez dituen ume bat izanik, pentsatu genuen bere gorputzak ez zuela iraungo. Gero ordea, aurkakoa da, umeak dira errazen jasaten dutenak. Sendagileak esandakoan, ordu erdi behar izan nuen erreakzionatzeko eta gero galdera bakarra egin nion: zenbateko bizitza gelditzen zaio nire semeari? Bere erantzuna izan zen ea nola galdetu nezakeen hori, umea sendatuko zela.

### ◆ Zein da zuen semearen egoera?

Semearen leuzemia ona da, sendatzen denetarikoa. Ez du transplanterik behar, eta ondo doa. Hala ere, luzea da, bi urte egongo gara tratamenduan. Arazoa, leuzemia bera baino horrek eragiten duen defentsa jaitsiera da. Ondo-





rioz, birus asko hartzen dituzte. Gordailu izeneko aparailu bat daukate bular azpian, eta hori infektatzea ere larria da. Leuzemia kimioterapiarekin nahiko kontrolatuta dago, baina birusak dira arazoa. Etorri ginenean oso altua zen leuzemiaren portzentajea, eta orain ia hutsa, baina tratamenduarekin jarraitu behar du. Oraindik beste sei hilabete gelditzen zaizkio gutxi gorabehera kimioekin. Gero mantenimendua eta gordailua 10 urtera bitartean.

♦ **Haur minbizia ez da hain ezaguna. Nola erantzuten duzue gurasoek umea minbiziak jota dagoela jakindakoan?**

Hemen sartu arte ez ginen konturatu zenbat ume dauden gaixorik ezta minbizia bera zer den. Orain lagunek galdeztzen didate: "hainbeste ume al daude gaixo?" Dagoen ume kopururako portzentajea ez da oso altua, baina ospitalera bueltaka hainbeste ume ikustea sinestezina da. Gainera, ume gehienak bost urtetik beherakoak dira. Pentsatzen dugu zer egin dute koitadu hauek horrela egoteko? Nola hartu dute gaitza? Lehen ez zeuden horrenbeste eta orain gero eta gehiago. Konturatu gara gaixo daudenetako asko uztailean jaiotakoak direla (nirea ez), beharbada kasualitate hutsa da, baina...

♦ **Umeen minbizia ez ezik erietxean bizi duzuen egoera ere ezezaguna da. Horren berri ematen Eusko Legebiltzarrean izan berri zarete. Zer azaldu duzue?**

Guretzat garrantzitsuena da umeek erietxean leku gehiago izatea. Egun askotan logela denak beteta egoten dira, eta ume batzuk zain logela bat noiz libratuko beraiek sartzeko. Abenduan, guk umea ingresatu genuenean, bost gela zeuden isolatuak eta bi kanpoan. Abendutik hona ume pila bat gehiago etorri dira, eta ohe kopuru berarekin jarraitzen dugu. Hori onartezina da. Beraz, agintariak jakinaren gainean jarri nahi genituen. Gu joan ezean beraiek ez dakite zein arazo dagoen. Orain ea zerbaite egiten duten.

Badakigu dirua dela arazoa, eta ea zerbaite bideratzen duten tokia egokitzea. Hirugarren solairuan gaude eta azpikoan itxita dago pediatriako gunea, beraz tokia badago. Hori ireki eta ume hauentzako

egokitzeko inbertsioa minimoa da. Solairu horretan eguneko ospitala dago (han tratatzen dituzte umeak kimioterapiarekin). Horrela eginez gero, denak parean egongo ginatete, umeek leku gehiago izango lukete eta bide batez, ume hauentzako jolastoki txiki bat egin ahal izango litzateke, bestela ez daukate ezertxo ere.

♦ **Toki gehiago eskatzeaz gain, beste eskari batzuk ere badituzue, ezta?**

Gu animoz gaizki bagaude oso zaila da umei laguntzea eta nire kasuan beste ume bat izanik hari ere eman behar diot niretik zerbaite. Oraingoan denbora asko da semearekin ospitalean nagoela, eta alabak aurpegiatzen dit berarekin ez egotea. Nekatuta egon arren, pazientzia izan behar da, bolada asko lo egin gabe pasatzen ditugu, eta horri aurre egiteko laguntza behar dugu. Psikologoa astean behin etortzen da lau ordurako, eta gauden guzientzat ez da nahikoa. Aparkalekua ere bakarria dago Aspanogirentzat, eta autoentzako toki gehiago ere eskatu dugu bueltaka asko gabiltza-eta. Gure gunean hamar-hamabost ume eta horri eguneko ospitalekoak gehitu behar zaizkio.

*“Umeak leuzemia zuela jakitean burura etorri zitzaidan lehen gauza izan zen hil egingo zela”*

♦ **Diru falta da ospitaleko zuzendariaren arrazoia. Irtenbiderik egon daitekeela uste duzue zuek?**

Guk proposatu ditugu hainbat irtenbide. Orain gauden gunean, isolatutako gelez gain, beste bi daude kanpoan, baita guk erabiltzen ez dugun gela handi bat ere. Hori bitan banatu daiteke, eta lau gela izango genituzke kanpoan eta bost barruan. Obra egin behar da, bai, baina ez dut uste horrek gastu asko ekarriko litzuke-

enik. Osakidetzak ezin al ditu 5.000 euro gastatu hori egiten?

Umea ingresatuta nuela, jakin nuen diputatu bat etortzekoa zela erietxera eta idatzi bat prestatu nuen egoera azalduz. Ez nuen berarekin zuzenean egoteko aukerarik izan, baina zuzendariak faxez bidali zion idatzia. Erantzun zigun besteak beste gune horren okupazioa %58koa zela eta gu horrekin ez gaude batere ados, bertatik bertara bizi dugu arazoa eta badakigu denbora guztian ia topera gaudela (beharbada iazko datuak ziren). Gurutzetako ospitalean tokia dagoela ere esan digute, baina gu ezin gara hara joan. Gainera, hemengo langile guztiakin oso gustura gaude. Profesionalen lana mundiala da. Gu beti ez gara umore oneko egoten eta beraiek animatzen dituzte umeak, beti irribarre batekin, erabat lanpetuta egon arren. Ez dugu horrekin kezatzeko motiborik, leku falta da arazoa.

♦ **Gurasoek ere elkarren arteko harremana duzue. Zer da familiek gehien eskertzen duzuen?**

Gurasoek elkarri laguntzen diogu, pena konpartituak errazago baitira gainditzen. Familiok ospitaleko langileei dena eskertzen diegu sendagaiez gain, gure umeak zaintzeko egiten duten lana.

Zer esanik ez gaixo dauden gure umeek daukaten indarra eta jolasteko gogoia. Guk ospitalean jasotako albistekin batzuetan negar egiten dugu, eta lur jota gelditzen gara. Beraiek etorri, musu eman eta zer gertatzen zaigun galdetu edo ondo daudela esaten digute. Gu animatutako gaudenean ere beraiek entretenitzen ditugu, eta alaiago egoten dira. Izan ere, logela batean sartuta daude eta ez daukate jostailurik. Guretzat ere egun bat isolatuta egotea hilabete baten parekoa da. Libururik ere ezin dugu sartu orriek umeak kaltetzeko arriskua baitago. Umeari tablet bat edo ordenagailu bat besterik ezin zaio sartu eta hori ere esterilizatuta.

Aspanogi elkarrean lana ere eskertzekoa da, besteak beste, Pirritx, Porrotx eta Marimototekin egindakoa umei DVD, ipuin edo antzerki bidez minbiziaren berri beraiek ulertzeko moduan emateko.

## Erabiltzen ez diren poltsikoko telefonoak biltzen ari dira Ikastolako ikasleak Kongoko gatazkari aurre egiteko

E lgoibar Ikastolako DBH 3. mailako ikasleek sakelako telefonoak biltzeko eta birziklitzeko kanpaina jarri dute abian. Eki ikasketa metodoaren baitan, egin dute proiektu hau. “Arlo guztietan daukagu proiektu bat eta unitate guztian barrena proiektu hori bideratzeko behar ditugun edukiak lantzen egon ondoren abian jarri dugu. Egitasmoa bera ez dugu guk ikasleok asmatu. Alboan izeneko gobernu kanpoko erakunde bat dago eta guk haiei eskatu diegu telefonoak jasotzeko kaxa”, diote ikasleek.

Kongoren aldeko mugikorrek izena du proiektuak. Izan ere, Kongoko Errepublika Demokratikoa, batez ere ekialdea, munduko meatzaritza-gune garrantzitsuenetakoa da, eta hango mineralak ezinbestekoak dira sakelako telefonoak egiteko. Mineralak ateratzea, prozesatzea eta saltzea talde armatuek kontrolatzen dute eta horrek asko kaltetu du Kongo. Azken 15 urteetan bost milioi pertsona baino gehiago hil dira, eta milioi bat lagun lekualdatu. Urtean, 100.000 emakume baino gehiago bortxatzen dituzte. Ikasleen ustez, “hilketak eta bortxaketak saihesteko minerala birziklatzen saiatu behar dugu. Mineral gehiago atera beharrean erabilitakoa birziklatzea da helburua. Poltsikoko telefono guztiek dute barruko zirkuituan minerala, beraz, zaharrak aprobeztatu daitezke eta ingurumena kontserbatzen ere laguntzen da”.

Mineral horiek dituzten mugikorrek erosis, esplotazioa finantzatzeko laguntzen da eta programarekin ari direnek gatazkarik gabeko teknologia nahi dute ez salerosketa hori izatea Kongoko gerra eta esplotazioa finantzatzeko bidea.

### Datuak ezabatu

Mugikorrek biltzeko kaxa ekainaren 24ra arte egongo da Ikastolako bulegoan, 8:00etatik 17:30era. “Birziklatu guk ez dugu egingo, baina esan digute



Paul Rojo, Oier Alberdi, Nerea Rodriguez, Ane Kortaberria eta Amaia Astigarraga DBH3ko ikasleak, jasotako telefonoekin.

**“Kongon hilketak eta bortxaketak saihesteko minerala birziklatzen saiatu behar dugu”**

telefonoak daturik gabe ekartzeko. Formateatu eta txartel guztiak (SD, SIM, etab.) kendu behar zaizkio. Bateria izan ala ez izan, ordea, ez du axola. Batzuek guri eskatu digute formateatzeko laguntza”. Elgoibarko Izarrako Ubitarteko bulegoan ere jasoko dituzte telefonoak.

Martitzenerako 35 telefono zituzten jasota, eta ikasleek harrituta begiratu zieten telefonoei, batzuk aspaldikoak zirelako eta besteak nahiko berriak ziruditen arren bota egin dituztelako. “Ez dakigu zenbaterainoko erantzuna izango duen kanpai-

nak gurean, baina eskatu nahi dugu laguntzea. Jendeak seguru asko izango ditu erabiltzen ez dituen telefonoak eta hau da modu bat zaborretara bota beharrean irtenbidea emateko”.

Egitasmoan parte hartzea gauza berriak ikasteko modua izan da. “Kanpaina bat garatzen ikasi dugu. Beste gelakoek, esaterako, posterrak egin dituzte jendea Ikastolan konturatzeko zein den telefonoen eragina. Horrelako ekimenekin jendeari lagundu diezaiogekula ere ikasi dugu”.

Kanpaina poltsikoko telefonoekin ez ezik, sinadurarekin ere lagundu daiteke [www.tecnologialibredeconflicto.org/eu](http://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu) webgunean. Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdeko gatazkatatik ihesi joan direnei arreta emateko diru-laguntzak ere jasotzen ari da Alboan, eta webgunean berean daude azalpenak. Besteak beste, eskola materiala eta oinarrizko jatekoa erosteko baliatuko dute diru hori.



# “Igoera bertikaletan elgoibartarren arteko lehia ikustea da gure helburua”

## ▶ IBAN MURUA ETA IÑIGO LARIZ MENDI LASTERKARIAK

Badago arrazoiren bat elgoibartarrak erreferente izateko igoera bertikaletan? Iñigo Lariz izan da kirol honetako dominatzaile nagusia azken urteetan Euskal Herrian, eta etxean irten zaio orain aurkari gogorrena, Iban Murua. Euskal Herriko Igoera Bertikalen Kopako bi proba irabazi ditu Muruak. Aurkariak bai, baina lagunak ere badira, eta modalitate honen gorabehera guztiez berba egin du BARREnek biek, besteak beste, lehen galdera horri erantzuna bilatu nahirik.

- ASIER ORBEA -

♦ Guztien ahotan dabil zure izena Iban. Sekulako agerraldia egin duzu 2016ko Igoera Bertikalen Euskal Herriko Kopan, bi garaipen eta bigarren postu bat eskuratuta.

**Iban:** Niretzako ere sorpresa izan da. Iaz hasi nintzen gauzak fundamentuz egiteko asmoarekin, baina ez nuen espero eman dudana maila ematerik. Igoera bertikalen batean podiumera igotzea zen nire helbu-

rua, asko jota. Nire kabuz entrenatuta aurrenekoen parera ailegatzea ezinezkoa zela konturatu nintzen, eta entrenatzeko era aldatzea izan da gakoa. Aitor Osari eskatu nion laguntza, eta zentzu eta ordena batekin entrenatzen naizenetik etorri dira emaitzak. Lehen gogoaren arabera ibiltzen nintzen. Ondo baldin banengoen mendira joan eta egurra ematen nion. Jakin egin behar da, ordea, noiz handitu

entrenamenduen intentsitatea, noiz atse-den hartu, edo noiz komeni den bizikletan entrenatzea.

**Iñigo:** Karakateko azken igoeran ikusi nuen bazetorrela Iban. Ez zuen lortu gurekin ailegatzea, baina gutxiatik izan zen. Aurten saltoa eman du. Askori gertatzen zaiena pasatzen zitzaien Iban; nahi eta ezin. Nahi dugu gure maila hobetzea, baina ez dugu asmatzen helburu hori lor-

**Iñigo Lariz** 33 urte, 168 cm., 62 kilo. Igoera Bertikalen Euskal Herriko txapeldun, 2014an eta 2015ean. Bi aldiz Kopako irabazle.



tzeko baliabide egokiak bideratzea.

♦ **Zein izan da mendi lasterketetan egin duzun ibilbidea, Iban?**

**Iban:** Karakateko igoeran hasi nintzen 2006an. Iñigo eta hauek ikusten nituen eta nik ere probatu behar nuela erabaki nuen. Ordura arte oinez ibiltzen nintzen mendian. Martxa luzeetan parte hartzen nuen, Elgoibarko Itzulian, Hiru Handietan... Igoera bertikalen bat edo beste ere probatu nuen. Akorduan daukat Txindoki-koan gorriak ikusi nituela. Ondo nengoela uste nuen arren, hango aldapak eta aurkariak ez zela hala erakutsi zidaten.

**Iñigo:** Prestakuntza espezifikorik gabe joaten dira asko horrelako probetara, eta izugarri sufritzen da. Igoera bertikalek 40-50 minutuko muturreko ahalegina eskatzen dute, eta gorputza horretarako prestatu behar da. Nik orain, sufritu arren gozatu egiten dut, horretarako prestatuta nagoelako.

♦ **Aurten irabazi dituzun probetatik zein egin dizu ilusio gehien, Iban?**

**Iban:** Zegamakoa izan da garaipen mediatikoena eta aurkariak maila handikoak

*“Mendiko lasterketetan anaia txikia dira bertikalak”*

- IÑIGO LARIZ -

ziren. Buetraitzeko Igoerak, baina, ilusio berezia egin zidan. Iñigo ere joan zen eta bere aurretik geratzeak nire aukeren berri konturatzeko balio izan zidan.

**Iñigo:** Zegamakoa Estatuan dauden bertikaletako espezialista onenak zeuden: Oriol Cardona, Agusti Roc, Ferran Teixido... eta hor ikusi zen Ibanek une honetan duen benetako maila.

♦ **Igoera Bertikalen Euskal Herriko Kopa irabazteko aukera handia duzu, Iban?**

**Iban:** Bi proba irabazi ostean, falta diren bi probetako bat irabaziz gero lortuko nuke Kopa. Izan ere, bost probek osatzen dute Kopa, eta hiru emaitzarik onenak hartzen dira kontuan. Oier Ariznabarreta durrangarra izango dut aurkari gogorrena.

Azken bi probak urrian jokatuko ditugu, Anboton eta Aratzen. Aurrez, iraillean, Igoera Bertikalen Euskal Herriko Txapelketa jokatuko da, Berriainen.

♦ **Eta zuk, Iñigo, nola ikusi duzu Ibanen bat bateko indarrean sartze hau?**

**Iñigo:** Gaitasuna zeukala ikusten nuen eta berari ere beti esan izan diot. Karakterako elkarrekin egin genuen hilabete eta erdiko entrenamenduarekin maila polita eman zuen. Oraindik gehiago hobetzeko ahala bazeukala uste nuen, baina ematera heldu den adinako mailarik emango zuenik ez. Euskal Herri mailan sorpresa bat izan da. Hasieran errezagoa da hobekuntza igartzeari, baina zenbat eta maila altuagoa izan, gehiago kostatzen da prestazioak hobetzea. Beste batzuk geldoago izan dugun progresioa askoz bizkorrago eman du Ibanek. Ondo bideratuta, barruan zuen gaitasuna ateratzea lortu du eta maila handiko jendeari irabazi dio. Ibanek izan duen eztanda hau ona da gure kirolarentzat. Ez gaude asko eta aurpegi berriak ikustea ona eta sanoa da. Nik neuk, beste bat daukat aurretik orain eta motibazio plus bat da. Ikusiarazi didalako maila horretaraino ere iritsi daitekeela. Berez dudana izaera lehiakorra piztu dit.

♦ **Hortaz, oraindik ez da Iban erreleboa emateko garaia. Aurrerantzean bi elgoibartarren lehia ikusteko aukera izango duzu.**

**Iñigo:** Helburua hori da, elgoibartarren arteko lehia ikusi ahal izatea lasterketa bertikaletan. Iban orain puntu bat goitik dago eta nire helburua Ibanen mailara heltzea eta parez pare lehiatzea da.

♦ **Badago arrazoiren bat elgoibartarrak igoera bertikaletan erreferente izateko?**

**Iñigo:** Egia da nabarmentzen ari garela. Iban, eta nitaz gainera Ainhoa Lendinez

ere oso maila onean dabil. Ez dakit Elgoibar inguratzen duten mendiengatik den ala zein beste arrazoirengatik, baina Euskal Herri mailan erreferente gara bertikaletan.

**Iban:** Niretzako Iñigo bera izan da erreferentea.

**Iñigo:** Baliteke bide hori zabaltzen lagundu izatea, Karakateko igoerarekin eta... Hasi nintzenean Suso (Jose Mari Fernandez) zen nire ispilua. Sekulakoak iruditzen zitzaizkidan bere markak, bai Karakatekoak baita San Pedroko bizikleta igoerakoak ere. Lortu nuen haiek gainditzea eta orduan hasitako bideak eraman ninduen lasterketa bertikaletara. Nik uste, BARRENen pertsona baten inguruan berba egiteak-eta, afizioa sortzen duela beste batzuegan, eta onenekin lehiatzeko gogoia pizten zaie horietako batzuei, Ibani gertatu zaion moduan. Inguru edo herri lau baten biziko bagina, argi dago beste erreferente batzuk izango genituzkeela, baina hemen Karakate daukagu. Ez da mendirik gogorrena, bistan da, baina ba-

## “Ordena batekin entrenatzen naizenetik etorri dira emaitzak”

- IBAN MURUA -

dauka bere gogortasuna eta bertikalak entrenatzeko toki aproposa da.

### ♦ Urte batzuetatik hona aldaketarik igarri duzu igoera bertikaletan?

**Iñigo:** Ni hasi nintzenean baino espezialista gehiago daude orain. Mendiko lasterketetan parte hartzen genuenok denetik egiten genuen lehen, bertikala, maratoi erdia edo mendiko maratokia. Ezagutza gehiago dugu orain eta badakigu prestaketa espezializatuagoa eskatzen dutela. Hiru modalitatek hartu dute indarra: bertikalek, maratoi erdiek eta ultra distantziako lasterketek.

### ♦ Uste duzue bertikalek merezi duten arreta jasotzen dutela?

**Iñigo:** Mendiko lasterketen munduan

anaia txikia dira bertikalak. Zegamakoa adibidetzat hartuta, argi dago proba nagusia Zegama-Aizkorri maratokia dela, eta bertikala lasterketa osagarri bat da. Lasterketa bertikalen Munduko Kopan parte hartu izan dut eta han ere beste horrenbeste gertatzen da. Nahiz eta badauden lasterketa bertikal batzuk indar handikoak, Canazeikoa, esaterako. Europako eta Munduko Txapelketa izan da hainbat alditan. Espezializatutako aldizkarietan zein prentsa orokorrean askoz arreta txikiagoa dute, eta indar handiagoa dute ultrek eta maratokiek. Nik uste dut lotura handia duela arropa eta oinetako enpresa handien estrategiek. Marka batentzat bertikal bat egitera doan korrikalariak, asko jota, zapatila batzuk, praka motz batzuk eta kamiseta bat erosiko ditu. Ultra bat egin behar duena, aldiz, hiru zapatila pare erosiko ditu entrenamenduetarako, motxila bat... askoz material gehiago salduko dute. Hori da euren ikuspegia. Komertzialagoa.

### ♦ Proba hauek duten ikusgarritasuna kontuan hartuta, salgarriak dirudite?

**Iñigo:** Bai, ados. Ikusgarriagoa da kilometro bertikal bat, erlojuaren aurkako formatuan zein danak batera irtenda, lasterketa luzeago horiek baino. Lasterketa askotan gainera, irteeratik helmugaraino parte hartzaileen ibilia jarraitzeko aukera dago eta leku ikusgarrietan jokatzen dira. Hala eta guztiz ere askoz gehiago saltzen dute iraupen luzeoko probek. Babesleek euren interesen arabera gidatzen dute kirol hau, federazioak monigote hutsak baitira oraingoz. Gaur gaurkoz hori da egoera. Hala ere, mendiko probek indar handia dute Euskal Herrian. Interes handia dago, eta gero eta jende gehiagok parte hartzen du. Gorantz doan kirola da, argi eta garbi.

**Iban Murua** (30 urte, 178 cm. eta 69 kilo). Igoera Bertikalen Kopako bi proba irabazi ditu aurten: Zegama-Aizkorriko kilometro bertikala eta Zuzenien Igoera Bertikala.



Arg.: Ramon Ferrer

## Nora Kortaberriak Eskubaloiko Munduko Junior txapelketa jokatuko du Errusian

Junior mailako Munduko Eskubaloi Txapelketa jokatuko da uztailaren 2tik 15era Moskun (Errusia). Espainiako selekzioak Polonian lortu zuen Mundiala jokatzeo sailkatzea, eta Nora Kortaberria elgoibartarrak Sagrario Santana hautatzailearen deia jaso du. Domeka honetan hasiko dira txapelketa prestatzen, Guadalajaran.

Kortaberriak Munduko Txapelketa jokatzeo azken deialdian egoteko itxaropena bazuen arren, aurreko astean jaso zuen baieztapena. Prestaketa partidetan "ez nuen nire mailarik onena eman", aitortu zuen. Hortaz, ez zuen erabat argi deituko zioten ala ez. Deitu ziotenean, baina, poz handia hartu zuen. Espainiako hautatzaile Sagrario Santanak hamasei jokalaria deitu ditu, tartean zazpi euskal herritar. Moskun, jokatuko da junior mailako mundiala, uztailaren 2tik 15era. Domeka honetan hasiko dira mundiala prestatzen, Guadalajarako kontzentrazioan. Kortaberriak hilabete inguru egin beharko du etxetik kanpo.



Bestalde, Sanlok konfirmatu du klub horretako beste bi elgoibartar deitu dituela Espainiako selekzioak: Julen Urruzola infantilen kontzentrazioa eta June Loidi promesen kontzentrazioa.

## Mintxetako BTT zentroa denboraldi baterako itxiko dute

Zortzi urteko funtzionamenduaren ostean, Debabarreneko BTT zentroa denboraldi baterako itxeko erabakia hartu dute inplikaturako erakundeek. Debegesa garapen agentziak kudeatzen du 2008az geroztik, Basquetour eta Elgoibarko Kirol Patronatuaren laguntzaz. Itxiera behin-behinekoa izango da. Itxiera honen bidez, "kirol eta turismo produktu honen berrazterketa eta egokitzapena" egin nahi dutela adierazi dute, etorkizunean berriro ere abian ipini eta bultzada berri bat emateko. Bien bitartean, BTT Zentroaren kudeaketa eta dinamizazio eredia berraztertuko dituzte.



## Datorren astean jokatuko da Nahaste Borraste

Kimetz Elkarteak antolatuta, datorren barixakuan (ekainak 24) lehiatuko da Nahaste Borraste proba herrikoia. 19:00etan hasiko da Kalegoenen. Partaideek hiru probatan lehiatu beharko dute: zazpi kilometro inguru egin beharko dituzte bizikletan lehenengo, ondoren 400 metro egingo dituzte korrika 25 kiloko zakua bizkarrean hartuta, eta azkenik 1.500 metroko ibilbidea osatu beharko dute saltaka.

16 urtetik gorako edonork parte hartu dezake. Izena emateko, proba hasi aurretik joan beharko da Kimetz elkartera.

Iazko edizioan Iñigo Larizek irabazi ez ezik errekor berria ezarri zuen, 17 minutu eta 50 segundotan. Emakumezkoetan Ainhoa Lendinez izan zen bizkorrena, 20:33eko denborarekin.

## Lagunak pilota txapelketak baditu irabazleak

**G**aztetxoentzako pilota txapelketa antolatu du, beste urte batez, Lagunak pilota eskolak. Aurten 34 umek hartu dute parte Kalegoen plazako frontoian jokatu den txapelketan eta joan den domekan jokatu zituzten finalak. Aurre-benjamin mailako finalean, hau da, zortzi urteko pilotarien artean, Aner Zinkunegik eta Haiz Oñederrak jokatu zuten finala, eta Zin-



Arg.: Aitor



kunegi gailendu zen 16-10 emaitzarekin. Benjamin 1 mailako (9-10 urte) finalean 16-10 irabazi zion Beñat Iriondok Xabier Telleriari, eta Benjamin 2. mailan Iker Izagirrek 16 eta 5 irabazi zion Eneko Etxanizi. Alebin mailako finalean 11 urteko bi pilotarik neurtu zituzten indarrak eta Alex Berguak lortu zuen garaipena, Beñat Juradori 16 eta 3 irabazita.

## Sanlo festarekin amaitu zen eskubaloi denboraldia



Eskubaloi egunak eta Sanlo festak bat egin zuten joan den zapatuan. Goizean eskubaloi partidak jokatu zituzten laugarren Eskubaloi Egunean parte hartu zuten gaztetxoek Kalegoen plazan, eta gero, 400 lagun inguru batu ziren Sigman egin zuten Sanlo festan. Bazkalostean, talde bakoitzeko jokalariek aipagarrienak saritu zituzten.

## Gizonezkoen eta emakumezkoen pala txapelketetako finalak jokatuko dituzte gaur

Emakumeen eta gizonezkoen pala txapelketak iritsi dira amaierara. Eguaztenean jokatu zituzten finalerdiak eta honako bikoteek lortu zuten finalerako sailkatzea: Jone Loiolak eta Amaia Loiolak osatutako bikoteak Olatz Txurrukarren eta Inma Mugertzaren aurka jokatuko dute emakumezkoen finala. Gizonezkoetan, Asier Jauregik eta Unai Etxeberriak osatutako bikoteak Mikel Lopez Morcillok eta Sergio Salgadok osatutakoaren aurka jokatuko du. Gaur, hilak 18, jokatuko dituzte finalak, 18:30ean hasita. Kalegoen plazan jokatuko dituzte partidak, baina euria egiten badu, Ikastolako frontoian izango dira.



## Rock kontzertua eskainiko du Udal Musika Bandak zapatuan



**M**aala rock doinuz jantziko du Udal Musika Bandak bihar, zapatua, 22:30ean hasita. Bandako 54 musikariez gain elgoibartarrez osatutako rock talde bat arituko da: Silvia Hernandez (teklatura), Jon Gurrutxaga (ahotsa), Ander Mujika eta Patxi Zabaleta (kitarrak), Andoni Mujika (baxu elektrikoa) eta Ruben Irigoien (bateria). Rock talde ezagunen abestiak joko dituzte: Metallica, Scorpions, AC/DC, Deep Purple, Ken zazpi, Gatibu... Beste hizkuntza musikal bat erabiltzen duen taldearekin bat egitean emaitza ezin hobea izango dela uste dute. Aurrez txistu, dultzaina, abesbatza edo gaita galiziarra izan dituzte lagun, baina oraingoa erronka handiagoa da. Bandako ohiko kontzertuetatik irten eta emanaldi berri eta berezia eskaintzea da helburua, baita betiko entzuleez gain, publiko berri eta gazteagoa erakartzea ere.

## Mendaroko danborradarako entseguak uztailean

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere danborrada egingo dute Mendaroko Santa Ana jaietan, uztailearen 25ean. Antolatzaileak hasi dira deialdia egiten eta parte hartu nahi dutenek uztailearen 4an eman behar dute izena, lehen entseguan. Ikastolan egingo dituzte entseguak uztailean, astelehenera eta eguaztentera (uztailearen 4, 6, 11, 13, 18 eta 20an), 21:00etan.

## San Bartolomeetako programaren azalaren lehiaketa abian da

Elgoibarko Udalaren Kultura Batzordeak lehiaketa antolatu du 2016ko San Bartolome Jaietako programaren azala aukeratzeko. Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira uztailearen 5eko 13:00ak baino lehen. Irabazleak 700 euroko saria jasoko du. Lehiaketako oinarriak Udalaren webgunean eskuratu daitezke.

## Dantza modernoaren ikuskizuna Goñatin

Ana Alberdi eta Lucia Dieguezek ikasleek dantza modernoaren erakustaldia egingo dute gaur, barixakua, 22:00etan Mendaroko Goñati pilotalekuan. Ikasturtean barrera ikasitakoa jende aurrean azalduko dute ia 80 ikaslek. Irakasleek gonbidapena egin dute frontoira bertaratzeko eta gorputza mugitzeko.



## Haritz taldea Idauze-Mendiko festetan dantzan



Maskariak ekimenean parte hartuz Idauze-Mendiko festetan izan da dantzan Haritz Euskal Dantzari Taldea. Aurrez, otsailean, Zuberoan izan ziren eta han jaso zuten herriko gazteen gonbitea Idauze-Mendiko jaietan dantzatzeko. Haritzekoez gain, Idauze-Mendiko, Eskiulako, Ezpeizeko, Garindaineko, Iruri-Zalgizeko eta Urdiñarbeko dantzariak eta aurten maskaradak eman dituzten Hokiko aitzindariak aritu ziren. Haritzek Gipuzkoako dantzak eskaini zituen Eibarko musikariek lagunduta.



## Ekigain jaiarekin egingo zaio ongi-etorria udari Sallobenten, martitzenean



**E**lgoibarko Izarrak, Udalaren diru-laguntzarekin Ekigain jaiaren antolatzaileak du ekainaren 21erako Sallobente-Ermuaranen udari ongi-etorria egiteko. Suak, urak, naturak, jan-edanak, dantzak eta musikak jai-giroan bat egingo dute urteko egunik luzeena ospatzeko. 19:00ean Maalako parkean elkartu eta Sallobente-Ermuaranera joango dira oinez eta kalejiran (oinenez joateko aukerarik ez dutenentzat, hitzordua 20:00etan izango da Sallobente-Ermuaranen). Han 20:30ean afari-merienda egingo dute (jatekoa norberak eraman beharko du, baina edariak eta postrea –krepeak– erosteko aukera egongo da, apropos jarriko den txosnan). 22:00etan sua piztuko dute eta suaren inguruan kantuan, dantzan, saltoka... ibiliko dira bertaratzen direnak. 23:00etarako iragarri dute etxerako buelta kalejiran, horregatik frontala eramatea gomendatu dute antolatzaileek.

## Luis Mari Arakistain omenduko dute kontzertu batekin egunean

Kontzertu berezia izango da egunean, 20:30ean, Herriko Antzokian. Bikustik (Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaleta); A2an! (Alfonso Guillo eta Gabi Agirregomez-korta); eta Expression Sonora arituko dira. Berezia izango da kontzertu horrekin omenduko baitute otsailean hil zen Luis Mari Arakistain, Expression Sonorako bateria jolea. Bere taldekide Alfonso Guillo, Gabi Agirregomez-korta eta Patxi Garciak joko dute egunean eta Luis Mari Arakistainen iloba Jon Gurrutxagak ordezkatuko du osaba baterian. 1969ko irailean hasi zen Expression Sonora, eta iraun zuen bi urteetan arrakasta handia lortu zuen. Gazteentzako dantzaletan edo gazteek antolatutako jaialdietan 60. hamarkadako musika talde britainiarrei hartutako kantuak jotzen zituzten. Expression Sonora 1971n desegin bazen ere, gerora berriz elkartu eta 1986an Zazpiki Irrati libreak laguntzeko Odeon zineman jaialdi batean aritu zen. Gerora ere eskaini ditu hainbat kontzertu Jon Gurrutxaga ahotsetan lagun zutela.

Musikaz gain, mendizaletasuna zen bere zaletasun nagusia eta mendian ez zen nolanahikoa gainera. Besteak beste Akonkagua igo eta Pico Comunismo igotzeko saiakera ere egin zituen. Oraingoan musikarekin gailurrera igoz oroituko dute Luis Mari Arakistain bertaratzen diren lagunek eta herritarrek.

## Euskal kantagintzaren errebasoa egingo du Mikel Markezek eguaztenean

Euskal kantagintzan historian barrera izan diren kontuak eta kantuak hainbeste izanik ez da erraza horien errebasoa egitea. Hori da, ordea, Mikel Markez abeslariak ekainaren 22an, 18:30ean, Kultur Etxeko sotoan egingo duena.

Kantagintzaren inguruko kontakizunak egiteaz gain, gitarra lagun, hainbat kantu ere abestuko ditu. Garai bakoitzeko testuinguru sozial eta politikoa euskal musikak sasoi horietan eman duenarekin bateratuz musikagintzaren historia pixkanaka marraztu eta kantarik esanguratsuenekin apainduko du. Hitzaldia eta kantaldia uztartuko dituen emanaldi honetan parte hartzeko gonbitea egin dute antolatzaileek: Elgoibarko Izarra, Elgoibarko Udala, AEK euskaltegia eta Udal Euskaltegia. Sinuiose kultur elkartearen laguntza jaso dute eta ekitaldia Elgoibarko Udalak babestu du.

Tertulia programaren harira antolatuko dute Mikel Markezek kantaldi-hitzaldia, baina ateak zabalik egongo dira nahi duten guztientzat programan parte hartu ala ez. Gainera, sarrera doakoa izango da.



**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adineko pertsonak zaintzeko prest. Orduka, interna edo gauetan. 628 014 327

Adineko pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. 637 966 749

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. 625 857 164

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. 631 212 497

Matematika, kimika eta fisika eskolak ematen ditut, batxiler mailara arte. 943 743 926

Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Bakarka edo talde txikietan. 685 706 001

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Etxeak, tabernak eta elkarteak garbitzen ditut. 628 738 472

Pertsona elgoibartarra adinekoak zaindu, paseatu, janaria prestatu eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia eta erreferentzia onak. 660 511 781 edo 943 742 330

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko prest, orduka edo interna. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Esperientzia daukat. 616 457 254

Adineko pertsonak edo umeak zaintzen ditut. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. 632 564 679

Pertsona elgoibartarra nagusiak zaindu, paseatu, janaria prestatu eta etxeko lanak egiteko prest. Diplomatu naiz eta informeak dauzkat. 675 711 658

Garbiketa lanetan aritzeko prest nago. Orduka. 612 458 762

lan bila nabil. Okin lanetan eta sumermerkatuan aritutakoa naiz. 631 363 056

Pertsona arduratsua orduka garbiketa lanak egiteko edo zerbitzari aritzeko prest. 612 477 386

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Interna edo orduka. 631 417 922

Garbiketan edo obretan peoi lan egiteko prest. Esperientzia handia. 631 162 014

Garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. 631 132 553

Adinekoen zaintzan lan egiteko prest. Interna. 612 266 877

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka. Esperientziarekin. 603 651 808

Umeak zaintzeko prest, Elgoibarren edo inguruko herrietan. 653 569 293

Geriatría laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. Orduka aritzeko eta paseatzera ateratzeko prestutasun osoa. 646 931 162

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 625 857 164

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest, orduka. Esperientzia dut. 671 989 434

Elgoibartarra etxeak garbitzeko prest. Prezio oso onean. 649 782 967

Gazte euskalduna umeak zaintzeko edota LHko eskola partikularrak emateko eskaintzen da. 688 652 457

Pertsona euskalduna portalak edo elkar-teak garbitzeko prest. 617 571 210

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest. Orduka edo interna. 616 281 931

Furgonetarekin banatzaile, sukaldari laguntzaile edo tabernari lanetan aritzeko prest. 688 715 904

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan egingo nuke lan. Paperak behar bezala dauzkat. 625 857 164

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat, baita paperak behar bezala ere. 616 328 060

20 urteko ikasle euskaldunak umeak zainduko lituzke uztailean. 608 989 294

**Eskaintzak**

Zerbitzaria behar da Malape tabernan lan egiteko. Sukaldean lan egiten ere jakin behar du. Curriculuma Malape tabernan laga.

Umeak zaindu eta etxeko lanak egingo dizkigun pertsona bat behar dugu, berehala lanean hasteko. 636 193 807

Ile apaintzailea behar da San Lazaro Egoitzarako. 943 740 296 (Monika edo Itziar).

**ETXEBIZITZAK.....****Alokairua**

Familia batek etxebizitza hartuko luke alokairuan Elgoibarren. 632 608 683

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 605 322 824

Etxebizitza bila nabil. Buhardilla bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Gela bat edo bikoa. 602 490 595

**GARAJEAK.....****Salgai**

Debako hondartzan garaje itxia salgai. Lehenengo solairuan. 655 712 021

**Alokairua**

Bi autorentzako garaje marraduna alokagai Pista Beltzean. 75 €ko alokairua. 699 812 566



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
**943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**Hodien garbiketa egitea erabaki genuen komunitateko etxejabeen azken bileran, baita garbiketarako egiteko beharrezko erregistroak jartzea ere. Bulego bateko jabeak ezezkoa eman dio bere lokaleko sabaian erregistro bat jartzeari, uste duelako aldaketak eraikinaren egituraren eragina izango duela. Hodiak garbitzeari ez dio ezezkoa esan, baldin eta garbiketa egin behar den bakoitzean sabaia irekitzen bada eta hori egiten den bakoitzean igeltsua eta pintura ordainduz gero. Zer egin behar dugu egoera honen aurrean?**

Zortasun-aktuazioa dakarren interes orokorreko zerbitzu komuna izanik, jabeak nahitaez onartu behar du. Legeak dio jabe guztiek derrigorrez baimena eman behar dutela bere etxebizitza edo lokalean eraikinaren zerbitzuak eskatutako konponketak egiteko eta horretarako zortasun-aktuazioa dakarren interes orokorreko zerbitzu komunak onartzeko, beti ere legeari erreparatu adostutakoaren arabera. Lanek etxebizitza edo lokalen batean eragina izan badute, komunitateak ordaindu beharko dizkio kalte-galerak.

Erregistroak jartzea legeak esandako gehiengoaren arabera eginez gero, lanen eragina jasan duen jabeak interes orokorreko zortasun gisa derrigorrez onartu beharko du. Beraz, legearekin adostuta hartutako erabakiak jabe guztiak betetzera derrigortzen ditu.

**AHOLKUA: Lokalaren jabeak ezezkoa emanaz gero, komunitateak bide judizialek jotzea beste irtenbiderik ez du izango. Eta jabea kondenatuz gero, obra egitea onartu beharko luke eta gainera prozesu-kostuak ordaindu, baldin eta epaileak hala erabakitzen badu.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Alaine!** Ekainaren 21ean 8 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez muxuak. Segi beti bezain jator.



Zorionak, **Maria,** zure bosgarren urtebetetzean. Muxu handi bat familia guztiaren eta bereziki Elenaren partez.



Astelehenian Pikupeko famaun urtebetetzia. Zorionak **Markel!** Pastela jatera jungo dia Elgoibarko sorginak. Bi muxu.



Zorionak, **Elene!** Konturaterako 2 urte gure printzesa txikiak. Txupatxus zaporeko mila muxu. Etxekoek, bereziki Janirek.



Zorionak, **Mar-ikel!** Bihar 9 urte. Muxu handi bat denon partez, txapeldun!




Zorionak, **Aimar!** Ekainaren 15ean 5 urte bete zenituelako! Muxu handi bat familiakoek eta bereziki Danelek.



Zorionak, **Malen.** 7 urte bete dituzu. Muxu potolo bat familiakoek, batez ere Intza, Naia, Haizea eta Harrietek.




Zorionak **Elene** ekainaren 18an 2 urte beteko dituzulako. Muxu potoloa familiako guztien partez.




Zorionak, **bikote!** Azkenean zuei ere iritsi zaizue eguna! Disfrutatu eta zoriontsu izan etapa berri honetan. Zuen kuadrila.



Zorionak, **Jare** eta **Lier,** dagoeneko 2 eta 6 urte bete dituzuelako. Muxu asko familia guztiaren partez.




Zorionak, **Rocio** eta **Anton,** familiakoen partez. Ondo pasa zapatuan zuen ezkontza egunean.



Zuen eguna ailegatu da! Oso ondo pasatuko dugu. Familiakoen, **Anton**en koadrilakoen eta **Rocio**ren Koadrilakoen partetik.



Zorionak, **aita, ama, aitxitxa, amama...** 60 urte ezkontuta. Hau da marka hau! Mila kilo muxu familia guztiaren partez.




Egun zoragarria pasa dezazuela eta zoriontsuak izan zaitezela opa dizuegu bihotz-bihotzez. Familiakoek.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

 **PEDRO MIGUEL URRUZUNO, S.KOOP**

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**  
Deialdia  
Eguna : 2016ko ekainaren 22a  
Ordua: 18:30ean lehen deialdian eta 19:00etan bigarrenen  
Tokia: Ikastola. Ermuaranbide, 7 - Elgoibar

 **Jari ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean**

**943 744 112**  
Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

 **ELGOIBAR - DEBA optika audio**  
[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**ZURE LENTILLA PAKAREKIN Nezeserra + Malko artifiziala opari**

Kontsultatu baldintzak dendan/ Baliogarrria stocka agortu arte.

## 17 BARIXAKUA

**18:30** Pala txapelketetako finalak. Kalegoen plazan. (Euria eginez gero, Ikastolako pilotalekuan).

**19:00-22:00** Pintxo lehiaketa.

**20:00** Dantza ikuskizuna: *Biraka Power! Gure Indarra!*. Herriko Antzokian.

**22:00** Dantza modernoaren jaialdia. Mendaroko Goñati pilotalekuan.

## 18 ZAPATUA

**19:00-22:00** Pintxo lehiaketa.

**22:30** Kontzertua: Rock&Banda. Antolatzalea: Udal Musika Banda. Maalan.

**Sanmingeldarren eguna:**

**11:00** Meza.

**Gero**, salda eta txorizoa.

**14:30** Bazkaria. Bazkalostean, Benanzio Otaegiri omenaldia.

**Ondoren**, dantzaldia trikitilariekin: Elustondo anai-arrebak.

**Urruzunoko jaiak:**

**17:30** Meza, auzoan hildakoen alde.

**Ondoren**, mokadua, Xabier eta Ekain trikitilatiekin.

**19:00** Trialsin erakustaldia.

**Iluntzean**, Trikitilariak.

**21:00** Afaria, auzoko elkarteetan.

## 20 ASTELEHENA

**19:00** V. Nesken Binakako Raketa Txapelketa. Mendaroko Goñati pilotalekuan.

## 21 MARTITZENA

**19:00** Ekigain jaiak Sallobente-Ermuaran auzoan: afari-merienda, sua, kantua, dantza... Irteera, Maalan.

## 22 EGUAZTENA

**18:30** Elgoibar Ikastolako Batzar Nagusiaren lehen deialdia. 19:00etan bigarrena. Elgoibar Ikastolan

**18:30** Kantaldi-hitzaldia: *Euskal Kantagintzaren errepaso historikoa*. Mikel Markez. Antolatzaleak: Elgoibarko Izarra, Udala, AEK eta Udal Euskaltegia. Tertuliak egitasmoa. Kultur Etxeko sotoan.

## 23 EGUENA

**19:00** EH Bilduren ekitaldia. Kalegoen plazan.

**20:30** Luis Mari Arakistaini omenaldia. Bikustik, A2an! eta Expression sonora. Herriko Antzokian.

## Altzolako San Juanak (San Juan bezpera)

**19:00** Kanpai-hotsak eta jaien hasierako txapliguak.

**20:00** Salbea eta santuari jaietako zapia jartzea.

**21:00** San Juan zuhaitza jartzea

**23:00** San Juan sua ibaian.

**23:30** Akelarre eta edabe sendagarria.

**00:00** Suak.

## 24 BARIXAKUA

**19:00** Elgoibar BHI institutuko diploma banaketa. Herriko Antzokian.

**19:00** 23. Nahaste Borraste. Kalegoen plazan.

**Altzolako San Juanak (San Juan Eguna)**

**11:00** Prozesioa santuaren irudiarekin. Meza, abesbatzaren laguntzarekin eta San Juan lore-sorten bedeinkatzea. Pilotalekuan.

**12:00** Dardo txapelketan izen-ematea.

**17:00** Umeentzako jolasak

**19:00** Niala magoaren ikuskizuna.

**20:30** Txokolatada.

**22:00** DJ saioa.

BENETAKO BIZITZARAKO  
HIPOTEKARIOAK

**EURIBOR**  
**+ % 0,85**

Lehen urteko ITNa: %1,30.

UTBAldakorra: %1,229\*

**CA** bankoa  
CREDIT AGRICOLE



## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G  
U  
A  
R  
D  
I  
A  
K

09:00 - 22:00

17 Barixakua YUDEGO  
 18 Zapatua ORUESAGASTI  
 GARITAONANDIA (9:00-14:00)  
 19 Domeka ORUESAGASTI  
 20 Astelehena BARRENETXEA  
 21 Martitzena IBAÑEZ  
 22 Eguaztena GARITAONANDIA  
 23 Eguena ETXEBERRIA  
 24 Barixakua GARITAONANDIA

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara  
 ETXEBERRIA (Elgoibar)  
 Santa Ana, 1  
 Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)  
 Fermin Calbeton, 19  
 Tel.: 943 201 110

\* Fernandez: Herriko enparantza 4,  
 Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9  
 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

I. URTEURRENA

*Jose Elustondo Etxaniz**"Upaitza-Goikoa"*


2015eko ekainaren 15ean hil zen, 81 urte zituela. Haren oroimenez  
 I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainak 18,  
 arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
 Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

*Garbiñe Iriondo Aristondo*

2015eko ekainaren 13an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko  
 meza izango da, zapatuan, ekainak 18, arratsaldeko 19:00etan  
 Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
 Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

*Garbiñe Iriondo Aristondo*

2015eko ekainaren 13an hil zen, 47 urte zituela.

***Udaberriarekin batera, urtero bezala,  
 ekainaren hamahirua utzi degu atzean.  
 Gugandik joan zinen arren, Garbiñe maitea,  
 eman zenigun maitasuna dago gure artean.  
 Begirada eta irribarre eder haiek  
 betirako ditugu gure bihotzean.  
 Zure oroitzapenak gurekin dirau  
 mendian landaturiko haritzean.***

Zure koadrila





## Mikel Olaizola



**T**abakoaren keak pixa usaina hala moduz estaltzen badu ere, zikina itsatsia du inguruak zigarrokin, kerru eta ganora gehiegirik gabeko pintaden forman. Begirada juzgatzaileen gordeleku ilun gazteenek, euritatik eta

haizetik babes arratsaldeko pasioko aitontentzat; trenbide kalean eta geltokia parean, oharkabean joan etorri amaigabeen lekuko da bankua.

Bertatik begiratzen genuen guk ere mundua ilea ordura arte ezezagun zen eremuetan esnatu zenean. Banku beretik begiratu dugu berezko duen lekutik erortzen hasten denean ere. Gaur hutsik, nondik begiratzen dudana begira nago. Hormari bizkarrez, iraganarekin eta etorkizunarekin enkontrura eseri naiz.



## Eire Vila

Orain gutxi altxa dira Markel, Kevin eta Jon. Eguzkia gorenean, Bilborako tren iristen den orduak elkartzen ditu asteazkenero txokora, entrenamendu aurretik pare bat piti erretzera. Ia dena berria, ia dena lehen aldiko den garaia. Sexua, esperimentazioa, borroka borborka; maitasun deklarazioak, herriari gorespenak eta amorrua hormetan. Indartsu dabil *Eros*.

Konturutzerako hartuko dute ordea bertan lekua, makila hormaren kontra utzi eta txapela kenduz, Juanito eta Martzelinok. Siesta osteko tertulia iluntzeko azkenaurreko trenera arte luzatuz, lasaitasun eta bake apur bat baino ez dute desio. Ia dena lehenaldiko den garaia: ausentzia, oroitzapen eta batez ere ahanzturretan elkartzen dira. *Thanatos* ekinean.

Bihar ere itzuliko dira batzuk eta besteak. Saiatuko naiz ez berandutzen, berriz ere bankua hutsik harrapatu dezadan; bitzizarekin jarduteko tarte batez.

*“Oharkabean joan etorri amaigabeen lekuko da bankua”*



## *Tomas Belaustegui Urkidi*

*"Bizkai"*

2016ko maiatzaren 26an hil zen, 82 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Mikel De Pablo Cid*

*Goian bego.*

Pilar ikastetxeko lagunaren oroimenez.




## *Mikel De Pablo Cid*

2016ko ekainaren 14an hil zen, 30 urte zituela.

***Zure presentzia nabarmentzeko ez zara bizi izan,  
zure gabezia sentitzeko baizik.***

***Beti gure bihotzetan.***

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Mikel De Pablo Cid*

2016ko ekainaren 14an, 30 urte zituela hil zen.

***Askotan galdurik sentitzerakoan,  
zer egin gabe jakin gabe  
aurkitzerakoan,***

***begiak itxi eta zabaltzerakoan,  
beti izango zaitugu gure alboan.***

Koadrilakoak eta lagunak

# EKIGAIN JAIA

*Sua, ura, natura eta ... GU,  
urteko egunik luzeena ospatzeko*

**Ekainak 21, asteartea**

- 19:00: Maalako parkean elkartuko gara, handik Sallobente-Ermuaranera joateko, oinez eta kalejiran.
- 20:30: Afari-merienda
- 22:00: Sua piztu, kantatu, dantzatu, salto egin ...
- 23:00: Etxerako bidea, oinez eta kalejiran.

**Oharrak:**

- Oinez joateko aukerarik ez duzenontzat, 20:00etan izango da hitzordua Sallobente-Ermuaranen.
- Afari-merienda norberak eraman behar du, baina txosna jarriko dugu edariak eta pastrea (krepeak) erosteko.
- Frontala edo kopeta-argia eramatea komeni da, bueltako biderako.